

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LANTZIEGOKO UDALA

#### **Gaikuntza nazionaleko (Lantziego-Bilar-Kripan udalen elkarteko idazkari-kontuhartzailea) toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzea**

Lantziego-Bilar-Kripan udalen elkarteko idazkari-kontuhartzailea azpieskalako lanpostua gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostua da.

Lanpostu hori hutsik geratuko da 2019ko azaroaren 13tik aurrera, titularraren zerbitzu eginkizunengatik.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.1.h) artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta, ebazten dut:

Lehenengoa: dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera bost egun balioduneko epea ematea, Lantziego-Bilar-Kripan udalen elkarteko idazkari-kontuhartzailea lanpostua betetze aldera eskaerak aurkezteko. Lanpostu hori gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 48.enetik 51.en artikulura xedatutako legezko zernahi eratan bete ahal izango da.

Gaikuntza nazionala duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, lanpostuaren azpieskala eta kategoria bereko hautagaiak lehentasuna izanik; kontu hori behar den moduan egiaztatuko da.

Hautagai bat baino gehiago aurkezten badira, honako hau proposatuko da izendatua izateko hautagai moduan: parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean Ogasun Eta Herri Administrazio Ministerioak argitaratutako azken merezimendu lehiaketan puntu gehien lortu duena.

Idazkia posta elektronikoko helbide honetara bidaliko da: [alanciego@ayto.araba.eus](mailto:alanciego@ayto.araba.eus)

Bigarrena: jakinarazten da idazkari-kontuhartzaile lanpostuak 4. hizkuntza eskakizuna duela esleituta, merezimendu gisa. Lanaldia osoa izango da.

Hirugarrena: Arabako Foru Aldundiari hautatutako hautagaiaren behin-behineko izendapena proposatzea.

Laugarrena: ebazpen honen berri ematea udalbatzari egiten den lehen osoko bilkuran.

Lantziego, 2019ko azaroaren 8a

*Alkatea*

*ITZIAR DE ÁLAVA MARTÍNEZ DE ICAYA*